

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**250/2020 Foru Dekretua, uztailaren 31koa, diputatu nagusiarena, zeinak onesten baitu “2020. urtean Arabako Lurralde Historikoan gizarte berrikuntzako proiektuan aintzatesteko” sariak ematea**

Arabako Lurralde Historikoan gizarte berrikuntzako proiektuak aintzatestearen helburua da jendaurrean saritzea eta aintzatestea gizarte ekimen ekintzaileak eta Arabako Lurralde Historikoan gizarte berrikuntzari egiten dioten ekarpena. Hortaz, ekimen horren bitartez bi gauza egin nahi dira: batetik, jendaurrean aitortu ekimen horiek Arabako gizartearen ongizaterako egiten duten ekarpena eta, bestetik, katalizatzaile jardun, era horretako proiektuak eta ekimenak abian jar daitezen sustatzeko.

Arabako Foru Aldundiak agerian utzi nahi du Araban gizarte berrikuntza bultzatzeko eta sustatzeko duen konpromisoa. Horren erakusgarri da Arabako Gizarte Berrikuntzarako Foroan (aurrerantzean, AGBF) hartu duen bideratzaile rola, zeina AGORA gogoeta eta partaidetza prozesu eta gunetik sortu baitzen. AGBFn Arabako Lurralde Historikoko ekonomia, gizarte eta kultura arloetako eragileek parte hartzen dute, eta helburu nagusi du gizarte berrikuntzaren garapena erraztuko duen inguru bat sortzea Araban.

AGBF taldean, Arabako Lurralde Historikoko gizarte ekimen ekintzaileak aztertu dira, eta lehen hautaketan 24 proiektu aukeratu dira, gizarte berrikuntzako 150 ekimen baino gehiagoren artean. Ondoren, guztira 16 proiektu hautatu dira. Horretarako, honako elementu hauek hartu dira kontuan: lurraldetasuna, eragileen elkarreragina, eskalagarritasuna eta alderdi guztietan gizarte eraldatzeko berrikuntza proiektuak izatea, bizirik egotea eta komunitatea sortzea. Azkenik, nabarmendu beharreko bi proiektu hautatu dira, gizarte berrikuntzaren eredu direlako:

– “Giltza etxebizitzetarako bitartekaritza” proiektua (Gasteiz), Gasteizko Alde Zaharreko unitate pastoralara osatzen duten lau parrokiek bultzatua, gizarte eraldaketa sortzen duten zerbitzuen adibide. Gizarteratzea sustatzetik haratago doan proiektua da; gizarteratuta ez dauden pertsonen ahotsa eman nahi die, kolektibo kalteberei etxebizitza bat eskuratzeko aukera bermatzeko gizarte erronkari erantzuten dio eta komunitatea sortzen du. Etxebizitza bilatzen ari diren pertsonen laguntzen dien proiektua da, prestatu egiten ditu, komunitatea egiteko zubiak eskaintzen dizkie. Eragile anitzeko laguntza sarea du eta, azken batean, egungo gizarte harremanak eraldatu nahi ditu konfiantzazko komunitate baterantz, aurreiritziek lekurik ez duten komunitate helduago baterantz.

– “Hesi birtualak” proiektuak (Arabako Mendialdea), Izki Landa Garapenerako Elkarrekin bultzatuak, erakusten du produktu batek eraldaketa soziala nola sortzen duen. Lurralde proiektu bat da, nekazaritza jarduera berrakibatuzeko gizarte erronkari erantzuten diona, belaunaldien arteko erreleboa sustatuz, herri lurrak eta lursail pribatuak erabiltzeko teknologia aplikatzeari esker, eta elikadura naturala balioetsiz. Proiektu horren bidez, nekazaritza eta baso lurzoruen kudeaketa hobetzea lortzen da, eta ekosistema bat sortzen da ikerketaren, ekoizpenaren eta landa ingurune biziaren artean. Enplegu aukera bat ere bada, lehiakorra, despopulatzeko joerari buelta ematen diona, paisaia mantentzen eta suteak prebenitzen laguntzen duena. Lurralde osora zabal daitekeen esperientzia da.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea "Arabako Lurralde Historikoan gizarte berrikuntzako proiektuak aintzatesteko" sariak ematea proiektu hauei:

– Lehenengo saria, 3.000 euroz hornitua, "Giltza etxebizitzetarako bitartekaritza" proiektuari (Santa Maria parrokia, IFK: R0100060C).

– Bigarren saria, 1.500 euroz hornitua, "Hesi birtualak (Arabako Mendialdea)" proiektuari (Izki Landa Garapenerako Elkarte, IFK: G01052059).

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 4.500 euroko zenbatekoa esleitu dezala Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren 02401.09800.2.2.706.03 "Gardentasuna eta parte hartzea" partidaren kontura, lerroa 02.69 (xedapen erreferentziak: Santa Maria parrokia 105-2774/01, Izki Landa Garapenerako Elkarte: 105-2774/02).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 31

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**